

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Sarrigurengo institutu berria egiteko lanak eman ditu gaur Hezkuntza departamentuak

Enpresak 10 hilabeteko epea dauka lanak amaitzeko

Ostirala, 2018.eko urriak 26

Gaur bertan esleitu ditu Hezkuntza departamentuak Sarrigurengo institutuaren lanak. Rio Valle Construcción y Obra Pública enpresak egingo ditu, eta horretarako 10 hilabeteko epea izango du. Era horretan eraikin berria 2019-20 ikasturtean egongo da martxan.

Sarrigurengo institutu berriaren lehenengo fasean aurreikusitako lanak egun gutxi barru hasiko dira, zuinketa berretsi ondoren. Esleipena lortu duen enpresak 10 hilabetez amaitu beharko ditu lanak: 5.404.704,58 euroko aurrekontuarekin.

Zentro berriak Sarrigurenen, eta Eguesibarren orokorrean, dagoen hezkuntza eskariari erantzuna emango dio. Lehen eraikitze-fasean DBHko 6 lerro sartuko dira (24 ikastalde). Horretaz gain, ikasteko ezinbestekoak diren instalakuntzak ere aurreikusi dira: liburutegia, gela-bereziak (musika, informatika, plastika, laborategia, etab.), kirol jardueretarako azpiegiturak (soinketa-lekua, aldagelak), irakasleentzako gelak eta espazio orokorrak (biltegiak, bulegoak, garbiketa-gelak, etab.). Ondorengo bigarren fasean Batxilergo ikasleak hartzeko eraikitze-lanari ekinen zaio.

Ikastetxe berria Elizmendi kalean egonen da kokaturik eta osotara 8.423,70 metro koadroko azalera hartuko du.



Sarrigurengo institutu berriaren irudia.